

“KOSMODISEARI ESKER, IKASLEEK BEREN LANA HOBETO EGIN NAHI DUTE”



Cristina Aldasoro | La Salle Berrozpe | Zikloak

La Salle Berrozpe (Andoain) ikastetxeko Cristina Aldasoro da “Los Despistaos” taldeko irakasle arduraduna eta talde horren lanak lortu du Kosmodiseako Grapho Planetan Zikloak kategorian puntu gehien.

Nola jaso dute ikasleek Grapho Planetaren lehen postua?

Oso pozik. Gainera, sari hau eragingarria izan da datorren fasean lana hobetzeko.

Fase hau egiterakoan, zer iruditu zitzaizen zailena?

Ez zuten ongi ulertu zer egin behar zen eta zein forma eman behar zioten “wikiari”. Beraz, zuzenean proposatutako galderei erantzutea erabaki zuten. Hartara, pixkanaka, beren proiektua azaltzea lortu zuten. Taldearen proiektua dirurik gabeko bizimodua sustatzea da eta, horretarako, herri batean urte batean proba bat egitea proposatzen dute. Hasieran ideia polita eta erraza badirudi ere, biztanleen harreman ekonomikoa eta herritarra zehaztea kostatu zitzaien. Nolabait, gehien pentsarazi ziena trukea egiteko modua eta hori aurrera eramateko “araudia” zehaztea izan zen.

Grapho Planeta Kosmodisea lehiaketako aurtengo edizioan txertatu den berritasuna da. Zer iruditzen zaizu fase berri hau txertatzea? Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu baduzue, oraingo faseen programazioa beste urteetakoak baino hobek ala okerragoak iruditu zaizkizue?

Lehen esan dudan bezala, gehien kostatu zitzaiena "wikian" zer eta nola idatzi behar zuten ulertzea izan zen, forma ematea. Nire ustez, "wikia" oso egokia da ideiak argitu eta antolatzeko baina, egia esan, erraztea gustatuko litzaidake, kontuan izan behar baita Kosmodisea ikasgai batean txertatu dugula, eta eduki gehiago ditugula irakasteko.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

Lehenengo ediziotik parte hartu dugu eta gehien gustatzen zaiguna da, Kosmodiseak aurrera egin ahala, ikasleek jarduera ekintzailearekin lotutako gaitasunak garatzen dituztela eta, horretaz baliatuz, lana hobetzen saiatzen dira.

Eta zeintzuk dira Kosmodisean parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

Gehien bat, lana ongi egiteak behar duen denbora eta taldean lan egitean sortzen diren zailtasunak. Hala ere, azken zailtasun horretan, hobekuntza nabaritu dugu hasierarekin alderatuta: akordioak, lana banatzea eta ikasleen erantzukizuna hobetu dira.

Nola egiten diozue aurre Kosmodisea 2011-2012ko datorren azken "Mito" faseari?

Ilusioz, baina kezkaz aldi berean, lan ona egin nahi baitute eta azken fase hau ikasturte amaierarekin batera egingo baita.